

Anne Etchegoyen

& Les Voix Basques Abesbatza

Emazte



Prentsa dossierra

BIOGRAFIA

Anne Etchegoyen Donapaleuko haur-abetesbatzan hasi zen kantatzen, zortzi urte zituelarik. 16rekin, Baionako kontserbatorioan hasi zen ikasten, eta, bi urteren ondoren, Bordelekoan jarraitu zuen, non kantu klasikoaren oinarriak ikasi zituen.

Egun euskal kantagintza femininoko erreferentetzat joa, ezohiko ahotsa du, sotila, eta eztitasun berezi eta garbia badario ere, indarra ere badu batzuetan.

“ Anne Etchegoyen euskal kantagintza femininoko erreferentetzat jo da ”

Euskal kantagintza maskulinoa da nagusiki, baina Anne Etchegoyenek, hamahiru urteko ibilbide profesionalean, jakin izan du bere musika-unibertsoa bertan ezartzen, eta ekarpena egin du euskal musika jende gehiagorengana irits dadin; izan ere, gero eta publiko-mota zabalagoa erakarri du bere diskoen eta eliza edo agertokietan emandako kontzertuen bidez. Sorterri duen eskualdean, ezinbesteko artista bilakatu da, eta bertako kultura modu bakezalean eta munduari irekita Euskal Herriko mugez haraindi zabaltzeko gai den euskal artista bakarra da.

Agertoki ugarritan abestu du, bai Frantzian bai atzerrian: Olympia antzokia, Alhalbra, Parisko Kasinoa, Kortzega, Bretañan, Vendéen, elizak eta kaperak, Biarritz, Bordeaux, Périgueux, Angelu, Ferret, Montpellier, birak Argentinan eta Estatu Batuetan zehar... Denetan, batik bat euskal komunitateekin egin zuen bat.

2013an Smart/Sonyk argitara emandako «Les Voix Basques» proiektuaren arrakastari esker —80.000 ale saldu zituen eta bideoklipak bi milioi baino ikustaldi gehiago izan zituen —, kontzertu ugari eskaini zituen, gehienak erabat beteriko antzokietan, agertoki garrantzitsuetan, Hego Euskal Herrikoak barne: Kursaal eta Victoria Eugenia Antzokia Donostian; Guggenheimeko zabalgunea, Sala BBK eta Arriaga Antzokia, Bilbon.

Bere azken lana, «Compostelle, Du Pays Basque à Saint-Jacques», 2015ean familiaren etxetik Santiago de Compostelara egindako erromesaldian oinarritua, 2017an plazaratu zuen Crédo/Universalek. Erromesaldi horren kontakizuna da, musikaz lagundua, eta entzulea Etchegoyenekin batera doa soinu tradizional eta herrikoietara ekarritako paraje eta kilometroetan zehar. Diskoa oso arrakastatsua izan da, 10.000 ale baino gehiago saldu dira.

ALBUM BERRIA

Egile-konpositore-ablesaria, bai eta ekoizlea ere, Anne Etchegoyenek 2020an emango du argitara disko berria, Decca/Universalen eskutik, zeinetan Emakumea izango duen hizpide. 40 urte beteta, Annek emakumeak omenduko ditu, 10 abestitan maitasuna, poza edo tristura eragiten dioten gaiak jorratuz, betiere gure garaiko errealitateen arabera. Disko pertsonala, eta gaurkotasunean errotua. Folka izaten jarraitzen duen musika-unibertsoa, gitarra akustikoekin, bai, baina baita rockzalea ere, tarteka, gitarra elektrikoekin, eta euskal perkusio tradizionalak, txalapartak, alaitua. Batez ere, Les Voix Basques Abesbatzaren ahots epel, dinamikoa eta finekin aberasturiko musika-unibertsoa.

Kontzertuan :

Abenduak 10: BILBO - Arriaga Antzokia (Estreinaldia)

Urtarrilak 17: MUNGIA - Olalde Aretoa

Otsailak 25: PARIS - L'Européen

Martxoak 8: BIARRITZ - Théâtre du Casino

Informazio gehiago: www.anne-ethegoyen.com

«EMAZTE», EMAKUMEAREN ALBUMA

"Emazte" diskoan, Anne Etchegoyenek emakumezkoen aritu nahi izan du, eta, horretarako, euskal abeslaria den heinean, maite dituen gaurkotasuneko gaiak jorratu ditu. Horrez gain, bere burua bilakatu, eta xehetasun maskulinoz josiriko kantua dakar lan honetan.

Zenbait gertakari eta egoera daude proiekturako ideien oinarrian: Hasteko, andrazkoen rola Euskal Herriko gizartean. Izan ere, gizonen koruak dira nagusi; kirol garrantzitsuenak, berriz, errugbia eta pilota, eta, batik bat, gizonen lotuta daude.

Bigarren, emakumezkoen erakundeetan eta enpresetan bizi duten errealitatea, gizonen pareko berdintasuna ez baita oraindik erabatekoa.

Hirugarren, datu hau: Frantzia, 2019. urtea hasi zenetik, bi egun behin emakume bat erailten du bere bikoteak edo bilotekide oihak. Egoera hori abiapuntu idatzi zuen Patxi Garatek "Ixilik" abestia.

Azkenik, "La Manada" auzia ere funtsezkoa izan zen bilduma abiatzeko. Jazoerak protesta- eta sumindura-bolada eragin zuen, hala Espainian nola Europan, eta, jakina, Euskal Herrian ere bai, bertan gertatu zenez gero. Gogora ekartzearren, aipa dezagun emakume gazte batek talde-bortxaketa jasan zuela, 2016an, Iruñeko sanferminetan. Alabaina, bortxaketatzat barik, epaileek "sexu-abusutzat" jo zuten gertakaria, biktimak bere adostasuna ukatzeko adierazpenik egin ez zuela oinarri.

Gertaera honek "No es no/Ez da ez" abestiaren izenburua inspiratu egin zuen. Itziar Ituñorekin dago grabatuta, euskal abeslari eta aktorea, bereziki ezagutua Netflixeko "La Casa de Papel" sailean duen paperagatik.

Orobat, Etchegoyenek eta bere gitarra-jotzaile eta diskoaren errealizadore Jérôme Levatoisek emakumezkoak goren dituzten kantak grabatu dituzte. Horien adibideetako bat "No Pasarán" da, Dolores Ibarruri La Pasionariaren omenez sortua, hari zor baitzaio "No Pasarán" (Ez dira pasatuko) esamoldea.

"Emakume aske bat" kantak, oster, neskato baten hartzaroa dakar gogora. Garai horretan bizi izandakoari esker, neskato hori, egun, andre askea da, mutiko baten ama ezkongabea. Emakumeak lore batekin parekatzen du semea, mundua ezagutzeko jakin-minez betea eta bertan izaten diren aurreiritzietatik salbu dagoena.

Amatasuna eta transmisioa dira "Ttipi Ttapa" abestiaren gaiak; izan ere, Anne Etchegoyen ama gaztea da. "Seaska Kanta", berriz, Xabier Letek idatzitako lo-kanta da.

Halaber, albumak maitasun-abesti bi ditu: batetik, "Maite", Luis Marianok abestutako herri-kanta; bestetik, "L'évidence", Etchegoyenek berak frantsesez idatzitako abesti berria.



"Askatasunera" kantan, euskal artistak duoa osatu du Francine Massiani abeslari korsikarrarekin. Kantak kultura eta hizkuntzaren bidezko bakea eta nortasunaren transmisioa aldarrikatzen ditu. Jatorrizkotestuan, protagonistak anaiak dira, baina abestiaren egileak baimena eman du hura moldatzeko, anai horiek bi "ahizpa" izan daitezela.

Bukatzeko, Etchegoyenek "Boga boga" herri-kanta tradizionala berrinterpretatu du; hala, lehenengo aldiz, emakume-ahotsa da nagusi.

Albumaren zenbait abestitan, Anne Les Voix Basques Abesbatzaren ahots boteretsu eta delikatuak lagunduko dute, proiektu honetarako sortutako formazioa, 4 abeslari profesional gazte osatua.

Antonio Jimenez Anne eta Jérômerek aritzen da agertokian. Bere gitarra flamenkoari folk unibertsoa dario, eta diskoan hala antzeman daiteke. Lanak soinu klasikoak eta gaur egungoak batu ditu. Horiek sortzeko, hariak (gitarrak, biolina, biolontxelo) edo perkusioa eta batera baliatu dira, instrumentu tradizionalak —txalaparta, kasu— lagunduta.

Soinu-uztarketak euskal abeslariaren kutsua du, haren estiloa suma daiteke. Etchegoyen emakume euskalduna da, eta mundura irekita dago. Bere xedea ez da feminista, femeninoa baizik. Kantaria gustura dago andrazkoa eta aske izaten, eta bai ama- bai abeslari-rolak dagokienez pozik dago bere buruarekin. Betidanik, gizakion arteko berdintasuna aldarrikatu izan du, eta, bereziki, gizonen eta emakumeen artekoa. Horixe besterik ez. Gaitasun berak aintzatespen bera behar du.

Kontaktuak :

Sustapena: Pauline Gluzman,
pauline.gluzman@umusic.com, 06 24 14 61 62

Management: Thierry Wendl,
thierry.wendl@wanadoo.fr, 06 60 90 79 28

Booking España, Hegoalde : Producciones Serrano,
prod@pserrano.com 00 34 94 676 56 31

Booking Francia, Iparralde : Tacet (Didier Pascalis),
contact@tacet.fr, 06 07 02 73 85

Ekoizpena: Otentik Productions, otentikp64@gmail.com
www.anne-ethegoyen.com